

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978eko Uztailaren 28an, arratsaldeko 4etan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, J.L. Davant, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, A. Irigaray, P. Lafitte, E. Larre, L. Mitxelena, J.M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; L. Akesolo, N. Alzola, M. Atxaga, P. Charritton, X. Garmendia, J.M. Lekuona, J.A. Letamendia, J.L. Lizundia, J.A. Retolaza, M. Zarate, A. Zatarain, J.J. Zearreta euskaltzain laguntzaile, J. San Martin Idazkari dela.

Lojendio eta Larzabal jaunek ezin etorria adierazi dute.
Ohin den otoitzarekin hasi da batzarra.
Ekaineko batzar agiria onartu da.

a) *HARREMANAK*:

Idazkari ordezkokoak hartu diren liburu zerrenda irakurri du eta emaileei eskerrak ematea erabaki da.

CIEMEN, Centro Internacional Escarré sobre les Minories Etniques i Nacionals delakoaren gomita jaso da. Abadia de Cuixà (66.500 Prades. France) delakoan Abuztuaren 16tik 23 bitartean izango dituzten bileretara.

Kepa Enbeita "Urretxindorra" zenaren jaiotza ehunerteburuko omenaldiari Euskaltzaindiaren babesa ematea erabaki da. Omenaldi hau Bergarako Biltzar egunetan izango da. Irailaren 4tik 9ra, baina arratseko 9etan izango dira hitzaldiak Muxikan eta bertako programa osatzen duten euskaltzainek Bergaratik joan ezinik ez dute.

J.J. Zearretak, ondoko egunetan Donostian, Iruñean eta Eibarren irakasle titulurako egingo diren etsaminen berri eman du.

b) *GOIZEKO BILKUREN BERRI*:

Goizeko bilkuretan, jaun hauk bildu dira: L. Villasante, buru, J. Haritschelhar, J.L. Davant, L. Mitxelena, A. Zavala, P. Lafitte, X. Diharce, A. Irigaray, J. Hiriart-Urruty, E. Larre, J.M. Satrustegi, J. San Martin, J.M. Lojendio, L. Akesolo, N. Alzola, J.L. Lizundia, J.J. Zearreta eta J.A. Letamendia jaunak, beraz, euskaltzainak, eta "Euskara eta euskal literaturaren lekukoak" izeneko batzordekoak.

Lehendabizi, atzo, Matienan (Abadiño-Bizkaia) Zuzendaritzak egin zuen batzarraren berri eman da. "Bai Euskarari" kanpainaren ondorenak

aztertu ziren eta esku artean ditugun beharrianak: barne azpiegitura hobetzea eta bizkortzea; Ordezkaritzetako lankideen egoera sendotzeaz eta hauei eman behar zaien laguntza: CharriTon, Lafitte, Knörr eta Satrustegi jaunak ari baitira eginkizun hoik betetzen; Bergaran egingo den Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra eta bertarako "Siadeco" k egiten diharduen soziologi-estadistika azterketa; aditz batuaren argitalpenaren mentsa *Hitz egin* deritzan oinharritzko euskararen finantziaketa; *Euskararen Liburu Zuriaren* kreditoa garbitzea; *Estudio Socio-lingüístico del Euskararen* laburpena prestatzea eta argitaratzea. Egintza hauek la milioi pezetako zuloa uzten digutela kalkulatu zen, eta "Bai Euskarari" kanpainatik jaso denarekin lehen lehenik horren betebeharra agertu zen. Zuzendaritzakoak ondoren "Bai Euskarari" kanpainaren antolatzaileekin bildu ziren, lanaren lehen kontu ematea agertzeko eta finantzabideen jarraipena eta iraupena aztertzeko. Finantziabide hoietarako Zuzendaritzak proposatzen du Ekonomi Kontseilu bat osotzea, alde batetik kanpaina eraman dutenekin, eta bestetik Euskaltzaindiaren ordezkariak: diruzaina eta ekonomi eragilea, beren karguen arrazoiengatik eta kargurik ez duen euskaltzain bat. Euskaltzaindiaren ordezkari hoién esku egongo litzateke kontu begiratzea bestalde.

Lehen izendaturikoetatik landa, beste premia batzu ere aipatu dira: "Euskara eta euskal literaturaren lekukoak" bilduma eratzeaz eta argitaratzeaz; liburutegia antolatzeaz eta osotzeaz; ordenadore lanez, publizitateaz; Udal Izendegia argitaratzeaz; etb. Datorren urtean, Seber Altuberen mendeurrena dela eta antola daitezten Biltzar biez ere hitz egin da, bata gramatikari buruzkoa eta bestea Nazioarteko euskalari eta euskal linguisten mailakoa. Txosten hau onhartzen da, eta baita ere, funtsean behintzat, agertutako asmoak.

Euskara eta euskal literaturaren lekukoak.

Gai hontaz Euskaltzainburuak txosten bat irakurtzen du berriz, hots, Ekaineko Euskaltzaindiko bileran irakurri zuen berbera, puntu batzu zehaztuz.

Villasantek, A. Zavala eta L. Mitxelena euskaltzainek eginiko txostenen asmoa jasotzen du lehendabizi. Ondoren, bilduma honen garrantzi eta beharrian gorria; zer argitara, nola eta nork nabarmenduz.

Gero hauetariko puntuz puntu azaldu eta oharrak egin dizkiote.

Azkenez, eraskin gisara zera proposatu du, hots, euskal literaturako egile eta lan nabarmenen zerrenda; hasi XVI. mendean eta egunerarte-koa.

d) "BAI EUSKARARI" KANPAINAREN AURRE KONTU EMATEAZ:

J.J. Zearreta ekonomi arduradunaren txostena, asmoa sortzetik, kanpainaren historia eta ondorioa adierazi ditu. Eskerrak eman beharrezkoen artean, jaun hauk azpimarkatu ditu: "Aurman" publizitate etxeko E. Ibabe, eta J.M. Beaskoetxea; I. Azpitarte eta P.M. Basañez jaialdi eratzai-leak; J. Castañares finantza-gizona; J.M. Covian saleroslea; A. Elorriaga ekonomilaria; I. Juaristi ekonomilaria. Hoziez gainera, baita ere N. Baste-

retxea artista, kanpainarako irudigina eta T. Monzon euskaltzain lagun-tzailea bertarako kantagilea den aldetik. Euskaltzaindikoen artean, kanpaina hontako lanetan gogotsu aritu diren, J. San Martin, J.M. Satrustegi, E. Knörr, J.L. Lizundia, J. Intxausti, J.J. Zearreta bera, "Jakin" eta "Uzei" taldekoak eta kanpainaren arduradun izendatu zen X. Gereño. Diru bilketan sarrerak 55.000.000 pezetara igo dira; izan diren gastoak, prentsa-irratieako publizitate, material erosten eta zenbait liberaturen ordaintzez, 20.000.000 pezeta. Beraz, irabaziak 35.000.000 pezetara igo dira. Oraindik, bilketak amaitu gabe daudenez, geroago emango dira kontu zehatzagoak. Diru biltzeko iturri asko idekirik gelditzer zaizkigu ondoko urteetarako eta posible izango zaigu urtero hogetamar milioitik gora biltzea.

J.M. Satrustegik, gehigarri, oharpenak egin ditu, kanpainaren ekintzari buruz eta jasotzen dugun diruz ditugun zenbait asmo agertuz, bereziki barne egituraz, lekukoak bildumaz, kanpoko euskalari eta euskal linguisten Nazioarteko Symposium bat egiteaz eta abar.

"Bai Euskarari" kanpaina hau dela eta, Volksunie alderdiko flamen-dar diputatuek domina bat eman digute, beren oroiz, eta Getxoko "Itxas-argi" elkarteak hiri hartan eratutako jaialdian kopa bat eman zigen. Guz-tiei eskerrak ematea erabaki da.

e) *BERGARAN EGINGODEN EUSKALTZAINDIAREN VIII. BILTZARRE-KO EGITARAU AGERTZEA:*

J.L. Lizundiak sailkaturik eman ditu antolakizun, soziologia eta esta-distika eta hizkuntza batzordeen programak. Hitzaldi gelak entzungailuz nola eratuko diren, hitzaldien inguruan izango diren jaialdiak eta abr., Gero, hitzaldiak zertan diren eta hauen ordenamendua. Azkenik, hartu diren txostenen zerrenda irakurri du.

J.A. Letamendiak gaineratu ditu zenbait ohar, batez ere etorri diren txostenei buruz.

f) *EUSKAREN IZTERLENGUSUAK DIRELA ETA:*

L. Mitxelenaren txostena. Laguntza bati lotzeko, lehen lehenik oinarriko bibliografiaz jabetzearen premia agertzen du. Gure arteko askok, hontaz axola guti agertzen dutenez hutsune larri bezala salatzen du, zenbait adibide agerretaziaz.

Ohi den otoitzarekin amaitu da batzarra.

Euskaltzainburna

Luis Villasante

Idazkaria

Juan San Martin